



ATAUNgo UDALA

Administrazio baldintza partikularren agiria, Auzoeta kiroldegian zerbitzuen dotaziorako obra lanak kontratatzeko, prozedura irekia eta presazko izapidea medio.

1. Kontratuaren helburua

Kontratuaren helburua da obra hauek egitea: **Auzoeta kiroldegian zerbitzuen dotazioa.**

EJSN: 45.21

Proiektuak urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluko baldintzak betetzen ditu.

2. Kontratu bidez betetzeko premia administratiboak

Administrazio baldintza partikularren agiri honi dagokion kontratuak, premia hauek beteko ditu: Auzoeta kiroldegian zerbitzuen dotazioa.

3. Eskaintzaren oinarrizko aurrekontua

a) Eskaintzaren oinarrizko aurrekontua hau da: ehun eta hirurogeita hemezortzi mila zortzihun eta hamar euro (178.810,-).

b) Aurrekontu horretan, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa hau da: hogeita lau mila seiehun eta hirurogeita hiru euro eta berrogeita bost zentimo (24.663,45).

4. Urteroko banaketa

Kontratuaren aurrekontuko zenbatekoa urte bakar batean ordainduko da, 2010ean.

5. Aurrekontuaren aplikazioa

Proiektua finantzatzeko da Tokiko Iraunkortasuna eta Enplegua sustatzeko Estatu Fondoaren kargura; fondo hori urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua medio sortu zen.

- Lurralde Lankidetzako estatu idazkariaren onarpena (13/2009 Errege Lege Dekretuko 13.2 artikulua): 2010eko otsailaren 24ko Erresoluzioa.

6. Kontratuaren araubide juridikoa eta kontratuko dokumentuak

Tokiko korporazioen kontratuetarako oro har ezarritakoa alde batera utzi gabe, kontratuak arau hauek bete behar ditu:

- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua. Dekretu horren bitartez sortu ziren Tokiko Iraunkortasuna eta Enplegua sustatzeko Estatu Fondo Berezi bat; gainera, finantzaketarako kreditu bereziak onartu ziren.

- Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa.

- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorra.

Agiri honetaz gain, dokumentu hauek ere kontratuari dagozkio:

- Baldintza teknikoen agiria.

- Planoak.

- Proiektuaren txostenean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 128. artikuluan azaltzen den edukia.

- Lan programa, kontratazio organoak onartua.

- Prezioen koadroak.

- Kontratua formalizatutako dokumentua.

7. Kontratua egikaritzeko epea

Kontratua egikaritzeko epea SEI HILABETEkoa izango da, obraren zuinketa egiaztatutako egunetik kontatzen hasita.



ATAUNgo UDALA

8. Kontratua esleitzeko prozedura

Kontratua esleituko da prozedura irekia eta presazko izapidea medio (Legearen 96. eta 128. artikulua, epeak murrizteari dagokionez; eta 13/2009 Errege Lege Dekretuko 17.1 artikulua).

9. Kontratistari exigigarriak diren gastuak

Kontratistak ordaindu beharko ditu jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak. Gastu horien zenbatekoa berrehun euro izango da.

Obra finantzatzen duten administrazioetako batek exijituko balu, kontratistak, bere kargura, obraren identifikazio kartelak jarriko ditu, ezartzen diren ezaugarriekin.

Iraunkortasuna eta Enplegua sustatzeko Estatu Fondoak sortu eta beraien finantzaketari aurre egiteko ez-ohiko kredituak onartzen ditueneko azaroaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen garapenean emandako Lurralde Lankidetzako Estatu Idazkaritzaren 2009ko azaroaren 2ko Ebazpenean, obrak Fondoaren kontura finantzatzen direnaren berri emanez kartela jarri beharra ezartzen dute.

Halaber Lurralde Lankidetzako Estatu Idazkaritzaren 2010eko urtarrilaren 20ko Ebazpenean, obran jarri beharreko kartelaren eredu eta ezaugarri teknikoak finkatzen ditu.

10. Berme galdagarriak

- Behin betikoa. Behin-behineko esleipendunak kontratuaren zenbatekoaren %5 bermatu beharko du; hori, BEZ kontatu gabe.

11. Proposamenak aurkeztea

Eskaintzarako proposamenak gutun-azal itxietan aurkeztu behar dira. Kanpoaldean idatzi behar dira eskaintzaren izena eta eskaintzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena; eskaintzailearen edo haren ordezkorearen sinadura ere ezinbestekoa da. Gutun-azalen barruan, orri aparte batean, edukiaren zerrenda idatziko da.

Gutun-azalak aurkeztu behar dira kontratazio organoaren bulegoren batean (kontratuaren iragarkian azaltzen da bulegoak non dauden). Gutun-azalak eraman dituenari egiaztagiri bat emango zaio; agiri horretan azalduko dira eskaintzailearen izena, kontratuaren helburua eta gutun-azala entregatutako eguna eta ordua.

Proposamenak postaz ere aurkez daitezke. Kasu horretan, enpresaburuak bidalketa egindako eguna justifikatu behar du posta bulegoan eta kontratazio organoari proposamena bidali duela jakinarazi behar dio, egun berean, telex, fax edo telegrama bidez.

Baldintza horiek ez badira betetzen, dokumentazioa ez da onartuko, kontratazio organoak iragarkian zehaztutako epea amaituta dagoela jasotzen badu.

Azkenik, dokumentazioa jasotzen bada epea amaitu eta hamar egun baino gehiagora, ez da inola ere onartuko.

12. Proposamenak nola aurkeztu behar diren

Proposamenak aurkeztu behar dira bi gutun-azalaz, eta gutun-azalak zenbatuta egon behar dute, sobre bakoitzean honako inskripzio hau idatziko delarik: **"Auzoeta kiroldegian zerbitzuen dotaziorako obra lanak burutzeko kontratazioan parte hartzeko proposamena"**

A. 1 ZENBAKIDUN GUTUN-AZALA. Dokumentu hauek sartu behar dira, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130. artikuluari jarraiki (dokumentuek legeetan zehaztutako egiazkotasun baldintzak bete behar dituzte):



ATAUNgo UDALA

1) Nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak. Banako enpresaburuek, NANaren benetako kopia; pertsona juridiko diren enpresaburuek, erakundearen sorrerako idatzi edo dokumentuak eta estatutuak, Merkataritza Erregistroan edo dagozkion lekuan behar bezala jasoak.

Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kideetako biztanleek lan egiteko ahalmena bi modutan egiaztatu dezakete: dagokien erregistroan izena emanda, bizi diren estatuko legediaren arabera; edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, araututako moduan, erkidegoko xedapenen arabera.

Atzerriko gainerako enpresaburuek lan egiteko ahalmena txosten baten bitartez egiaztatu behar dute. Txosten hori egin dezakete bizi diren estatuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren bulegoan edo, bestela, enpresa dagoen lurraldeko Kontsularen Bulegoan.

2) Ordezkoen egiaztagiria. Proposamena ez badute eskaintzaileek sinatzen, ordezkoaren ahalmena egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar da, baita ahalduaren NANaren benetako kopia ere.

3) Aldi baterako enpresa elkarte bat osatzeko konpromisoaren dokumentua. Enpresaburuak elkartea osatuta aurkezten badute proposamena, beste dokumentu bat aurkeztu behar dute (pribatua izan daiteke); dokumentu horretan hitz eman behar dute esleipendun gertatuz gero elkartea osatuko dutela. Dokumentu hori sinatu behar dute enpresetako ordezkariak. Gainera, azaldu behar dute nor izango den aldi baterako enpresa elkartearen ordezkaria Administrazioaren aurrean, kontratuari dagozkion gai guztietarako, eta baita bakoitzak elkartean ze parte-hartze izango duen ere.

4) Eskaintzaileak kontratuak sinatzeko debekurik ez duenaren ziurtagiria. Eskaintzaileak adierazi behar du indarrean dauden xedapenetan zehaztutako zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela. Gainera, enpresaburuak horren ziurtagiria aurkeztu beharko du, behin betiko esleipena egin aurretik.

5) Kaudimenaren ziurtagiria. Enpresaburuak ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen teknika eta profesionala egiztatu behar ditu, kontratazio organoak irizten dion moduan, eta kontratuaren helburu, zenbateko eta ezaugarrien arabera, modu honetan:

- Finantza kaudimena. Finantza erakundearen aitorpen egokiak edo, hala badagokio, arrisku profesionalen kalte-ordainen aseguruaren frogagiria.

- Kaudimen tekniko eta profesionala.

a) Azken bost urteetan egindako obren zerrenda. Obra garrantzitsuenek egoki egin direnaren ziurtagiria behar dute. Ziurtagiri horietan azalduko da obren zenbatekoa eta obra horiek noiz eta non egin diren. Gainera, zehaztuko da lanbidearen arauen arabera egin ziren eta behar bezala bukatu ziren. Behar izanez gero, ziurtagiri horiek zuzenean emango dizkio eskumena daukan agintaritzak kontratazio organoari.

b) Enpresak obrak egiteko daukan teknikariak edo unitate teknikoak (enpresa barrukoak izan ala ez), batik bat kalitatearen kontrolaren arduradunak; adierazpen horri egiaztagiria gehitu behar zaizkio.

c) Enpresaren urteko batezbesteko plantilla eta zuzendariek azken hiru urteetan izan duten garrantzia, dagozkion frogagiriak.

d) Obrak egiteko enpresak izango dituen makinak, materiala eta tresneria; horri dagozkion frogagiriak gehitu behar zaizkio.

6) Atzerriko enpresa guztiei eskatzen zaien dokumentazioa. Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar badute, aitorpen osagarri bat aurkeztu behar dute, adierazteko kontratuan intzidentzia zuzen edo zeharkakorik gertatzen bada, Espainiako epaitegi eta epaimahaien jurisdikzioari men egingo dietela eta, hala badagokio, atzerrian dagokien foru jurisdikzionalari uko egingo dietela.



ATAUNgo UDALA

7) **Helbidea.** Eskaintzaile guztiek beren helbidea adierazi behar dute, jakinarazpenak bidaltzeko. Horrez gain, posta elektronikoko helbidea, telefono zenbakia eta fax zenbakia ere aurkez daitezke.

B) **2 ZENBAKIDUN GUTUN-AZALA.** Eskaintza ekonomikoa adieraziko da, hau da, kontratua egikaritzeko zenbatekoa; balio erantsiaren gaineko zergak aparteko partida gisa agertu behar du. Eskaintza ekonomikoa aurkeztu behar da I. eranskineko ereduari jarraiki.

Kontratuaren egiterapen aldian indarrean egongo diren prezio unitarioen zerrenda sartuko da kontratuaren prezioan. Prezio horiek ez aurkeztuz gero, lehiatzaileak administrazio-aurrekontuko berberak aportatzen dituela ulertuko da, bere proposamen ekonomikoa jasotako jaitsieraren ehuneko berdinean afektatuko dielarik.

Gutun-azal honetan sartu behar dira, baita ere, formularen bat aplikatuta ebaluatu behar diren balioespen irizpideen gaineko dokumentuak (prezioaz apartekoak dira horiek).

Halaber, kontratua gauzatzeko enpresak zenbat langile izango dituen adierazi behar da.

13. Proposamenak aurkezteko epea eta gainerako betekizunak

Proposamenak aurkeztu behar dira eskaintzaren iragarkian jarritako epean.

Proposamenek administrazio baldintza partikularren agiriko baldintzak bete behar dituzte. Interesatuak, proposamenak aurkeztuz gero, agiri horretako edukia onartu behar dute, baldintzarik gabe, baita proiektuko eta baldintza teknikoan agiriko edukia ere, salbuespenik gabe.

Proposamenak ezkutukoak izango dira eta hori bermatzeko bitarteko guztiak jarriko dira, proposamenak jendaurrean ireki bitartean.

Eskaintzaileek ezin dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, behar izanez gero, aldaketak edo hobekuntzak onartuko dira.

Gainera, proposamena bakarka aurkeztuz gero, eskaintzaileak ezin du beste batzuekin aldi baterako elkarte osatzeko proposamenik sinatu; halaber, eskaintzaileek ezin dute aldi baterako elkarte bat baino gehiagoan egon. Arau horiek hautsiz gero, eskaintzaileak sinatutako proposamen guztiak baztertu egingo dira.

14. Kontratua esleitzeko irizpideak

Kontratua esleitzeko, proposamenak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

1. Eskaintza ekonomikoa.....0tik 30era.

Puntuazio handiena eskaintza merkeenak izango du. Gainerako proposamenak formula honen arabera puntuatuko dira: eskaintza merkeena bider irizpidearen gehiengo puntuazioa zati eskaintzailearen eskaintza. Hau da, $EM/EE \times Z$. Formula horretan EM eskaintza merkeena da, EE eskaintzailearen proposamena eta Z irizpidean jaso daitekeen puntuazio handiena.

2. Txosten tekniko eta berezko baliabideak0tik 10era.

Obra egingo duten langileak zehaztu behar dira, baita langile horiei buruzko informazio hau ere: hirigintza obretan eta aholkularitza teknikoan daukaten esperientzia, titulazioa, arduraldia eta obran izango duten zeregina.

3. Obrak egiteko epea eta programazioa hobetzea 0tik 10era.

Betiere, eskaintzak balioesteko irizpide gisa aintzat hartuko da kontratua gauzatzeko baliatuko den eskulana: gehienez 50 puntu emango dira, kontratatuta dauden eta kontratatuko diren langileen arabera. Balorazioa ondorengo zehaztapenen arabera egingo da:

- 0 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 4 pertsona edo gutxiago izango direla eskeintzen duenari.



ATAUNgo UDALA

- 10 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 5 pertsona izango direla eskeintzen duenari.
- 20 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 6 pertsona izango direla eskeintzen duenari.
- 30 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 7 pertsona izango direla eskeintzen duenari.
- 40 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 8 pertsona izango direla eskeintzen duenari.
- 50 puntu hilabeteko batzbesteko langile kopurua 9 pertsona izango direla eskeintzen duenari.

15. Eskaintzak ohiz kanpoko edo neurrigabeko balioak dauzkala erabakitzeke irizpideak

Eskaintzak ohiz kanpoko edo neurrigabeko balioak dauzkala erabakiko da eskaintzaren prezioa eskaintzaile guztien eskaintzen batezbesteko prezioa baino %10 txikiagoa bada.

16. Konfidentzialtasuna

Eskaintzaileek proposamenak egiterakoan ematen duten informazioaren parte bat ezkutukotzat har dezakete, batik bat isilpeko gai tekniko edo komertzialei buruzko informazioa. Horrek ez du esan nahi urriaren 30eko 30/2007 Legearen xedapenak bete behar ez direnik; lege hori esleipenaren publizitateari eta hautagai eta eskaintzaileei eman behar zaien informazioari buruzkoa da. Kontratazio organoek ezin dute aipatu ezkutuko informazio hori eskaintzaileen baimenik gabe zabaldu.

Era berean, kontratistak isilpean gorde behar du kontratua egikaritzeko jasotzen duen ezkutuko informazio guztia; ezkutuko informazio hori zein den agirietan edo kontratuan dago zehaztua (besterik gabe ezkutukoa den informazioa ere bada). Eta ezkutuan gorde beharko du bost urtean, jasotzen duenetik kontaktzen hasita; hori, agirietan edo kontratuan epe luzeagorik ezartzen ez bada.

17. Prezioak berrikustea. Legearen 77.1 artikulua 7. klausularen gainean dioenaren arabera, prezioak ez dira berrikusiko.

18. Dokumentuak eta proposamenak irekitzea

a) Kontratazio Mahaia kalifikatuko ditu dokumentuak eta aztertu eta balioetsiko ditu eskaintzak. Mahaiko kideak izendatzen dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 10. ataleko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburu:

- Alkatea.

Batzordekideak:

- Udal injenieru aholkularia.
- Udal arkitektu aholkularia.
- Udalbatzako idazkari/kontuhartzailea.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat izango da Mahaiko Idazkaria.

Aurkeztutako dokumentazioa horretarako sortutako Kontratazio Mahaia kalifikatuko du (urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130.1 artikulua). Mahaiko buruak gutun-azalak irekitzea aginduko du eta idazkariak dokumentuak egiaztatuko ditu.



ATAUNgo UDALA

b) Kontratazio Mahaiak 1 zenbakidun gutun-azaleko dokumentazioan konpontzeko moduko akats edo gabeziak daudela ikusten badu, interesatuei jakinaraziko die ahoz. Jakinarazpena idatziz ere egingo da, kontratazio organoaren iragarkien bitartez, eta eskaintzaileek hiru egun baliodun izango dituzte Kontratazio Mahaiaren beraren aurrean akatsak zuzentzeko.

Gertatzen den guztia nahitaez egin behar den aktan jasoko da.

c) Behin dokumentazioa kalifikatu eta akatsak eta gabeziak (egonez gero) konpondu ondoren, Kontratazio Mahaiak Legearen 130. artikuluan azaldutako baldintzak betetzen dituzten eskaintzaileak onartuko ditu. Hala badagokie, eskaintzaileen kaudimena aztertu eta balioetsiko du, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 82. artikulua arabera. Horrez gain, baztertutako en zerranda egingo du eta zergatik baztertu diren azalduko du.

d) Ondoren, proposamenak jendaurrean irekiko dira, aurrez jarritako egunean eta lekuan. Proposamenak irekitzeko, Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 83. artikuluko formalitateak aintzat hartuko dira.

19. Behin-behineko eta behin betiko esleipenak

Behin-behineko esleipena kontratazio organoak adostuko du eta erabaki arrazoitua emango du. Erabaki hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 42 eta 135.3 artikuluen arabera argitaratuko da.

Betiere, kontratuen behin-behineko esleipena proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 20 egun naturalen buruan egingo da, gehienez.

Behin-behineko esleipena behin betikoa izan dadin, esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu behar ditu:

- Kontratuak sinatzeko debekurik ez duenaren aitortpena eta zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituenaren ziurtagiria.
- Behin betiko bermearen frogagiria.
- Espresuki eskatzen denean, Legearen 53.2 artikulua arabera, eskaintzaileak kontratua gauzatzeko bitarteko materialak eta giza baliabideak dauzkanaren ziurtagiria.

Behin-behineko esleipena behin betikoa izan dadin erabaki arrazoitua hartu behar da, 135.4 artikuluko lehen paragrafoan zehaztutako epea bukatu eta bost egun baliodunen buruan.

Eskaintzaileek enpresen aldi baterako elkarte gisa aurkeztu badute proposamena, osaeraren idatzia kontratua formalizatu baino lehen entregatu behar dute.

Halaber, esleipendunari aseguruaren bat edukitzea eskatzen bazaio, kontratua formalizatu baino lehen aurkeztu behar du poliza.

20. Kontratuaren arduraduna, obrako zuzendaria eta obrako ordezkaria

Kontratazio organoak kontratuaren arduraduna izendatu dezake, Sektore Publikoko Legearen 41. artikulua arabera.

Kontratazio organoak izendatzen duen obrako zuzendariak kontratatutako obra behar bezala egiteko ezinbestekoak diren zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztapen eta zaintza lanak egingo ditu. Kontratazio organoak obrako zuzendariaren laguntzaileak izendatu ditzake.

Kontratistaren obrako ordezkariak teknikari titulatu izan behar du, kontratatutako obraren antzeko lanetan eskarmentuduna; eskarmentu hori egiaztatzea egin behar da.

21. Zuinketa egiaztatzea eta lanen programa aurkeztea

Kontratua formalizatu eta hamabost egun naturalen buruan, zuinketa egin eta horren gaineko akta idatzi behar da.



ATAUNgo UDALA

Esleipendunak lanen programa bat aurkeztu behar du, kontratazio organoak onar dezan. Programa aurkeztu behar da kontratua formalizatu eta hamabost egun naturalen buruan, gehienez. Programa horretan proposamenean aurkeztutakoa garatuko da, kontratuaren baldintzak aldatu gabe, noski. Programa ikusita, kontratazio organoak aplikatu ala ez erabakiko du; programa kontratuari gehituko zaio.

22. Laneko segurtasun eta osasun plana

Kontratistak laneko segurtasun eta osasun plana aurkeztu behar dio kontratazio organoari, behin betiko esleipena jakinarazi eta hamabost egun naturalen buruan. Kontratistak bost egun naturalen buruan jakingo du plana onartu den ala ez. Edozelan ere, kontratazio organoak gehienez hilabete izango du, kontratua sinatutako egunetik kontatzen hasita, laneko segurtasun eta osasun plana onartzeko. Kontratistak ez baditu betetzen aurreko paragrafoan jarritako epeak eta, horregatik, obrak hasteko baimena jaso arren ezin badira hasi, kontratistak ezin du epea luzatzeko baimenik eskatu.

23. Epeak

Esleipendunak kontratua egiteko epea bete behar du, baita epe partzialak ere, jarri badira. Epe horiek kontatzen hasiko dira zuinetaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik.

24. Ordainketa erregimena

Ordainketak egiteko hilean egindako lanen ziurtagiriak aurkeztu behar dira eta lan horiek ordainduko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 200 eta 215 artikuluen eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 147 artikuluen eta hurrengo arabera.

Udalek hogeita hamar egun daukate kontratistei lanak ordaintzeko; hori, kontratistek obra ziurtagiriak edo kontratua (erabat edo partzialki) bete dutela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztutako egunetik kontatzen hasita (urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretuko 17.5 artikulua).

Kontratistak bizkorrago egin dezake lan, obrak kontratuan jarritako epean edo epeetan bukatzeko, salbu obren zuzendariak egokitzat jotzen ez badu. Alde horretatik, egindako lanen edo emandako ziurtagirien zenbatekoa dena delakoa ere, kontratistak ezin du urte horretarako zehaztu baino diru gehiago jaso. Horrela egindako ziurtagiriek berandutze interesak sortuko dituzte, bakarrik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 152 artikuluan ezarritako egunetik.

Kontratistak konturako ordainketak jasotzeko eskubidea dauka, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 200.3 artikuluen eta arautegiko 155 eta 156 artikuluen arabera. Edozein modutan, bermea egiteko eskatuko zaio, abal moduan edo Legeak onartutako beste moduren batean.

25. Egikaritze baldintza bereziak

Agiri honetako kontratua gauzatzeko ezinbestekoa da esleipendunak kontratatzen dituen langile berriak langabeak izatea (urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretuko 17.2 artikulua). SPEE bitartez errekerituta eta epe luzez langabetu goeran aurkitzen direnei lehentasuna emanda.

26. Zigorrak

Kontratistari kasu hauetan jarriko zaizkio zigorrak:

a) Egikaritze baldintza bereziak betetzen ez dituenean. Agiri honetan ezarritako egikaritze baldintzaren bat ez betez gero, kontratistari zigor hauek jarriko zaizkio:



ATAUNgo UDALA

- Oro har, zenbatekoa izango da kontratuko aurrekontuaren %1, salbu kontratazio organoaren iritziz baldintza haustea larria edo oso larria bada (betiere arrazoiak eman behar ditu); kasu horretan, zigorra zenbatekoaren %5etik legez ezarritako gehiengo %10erakoa izango da.

Baldintzak behin eta berriz ez betetzea aintzat har daiteke arazoa larria den ala ez erabakitzeke.

- Horrela, zigorra kontratistari egin beharreko ordainketa oso edo partzialari edo bermeari kenduko zaio, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196.8 artikulua araberara.

Kontratazio organoak kontratua gauzatzen ari den bitartean noiznahi egiaztatu dezake esleipenduna egikaritze baldintza bereziak betetzen ari dela eta obrak hartzeko momentuan beti egiaztatuko da.

Kontratistak langileak kontratatzerakoan ez badu betetzen aurreko klausulan jarritako baldintza, urratze larritzat hartuko da (Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 102.2 artikulua); hori, kontratatutako langile berrien %50 baino gehiago langabezia ez badago.

b) Kontratua akatsekin betetzen duenean. Kasu honetan, jarraibideak hauek dira:

- Kontratua akatsekin betetzea da obrak amaitu eta onartzeko moduan ez egotea, eta arrazoiak kontratistari egozteko modukoak izatea.

- Oro har, zenbatekoa izango da kontratuko aurrekontuaren %1, salbu kontratazio organoaren iritziz baldintza haustea larria edo oso larria bada (betiere arrazoiak eman behar ditu); kasu horretan, zigorra aurrekontuaren %5etik legez ezarritako gehiengo %10erakoa izan daiteke. Baldintzak behin eta berriz ez betetzea aintzat har daiteke arazoa larria den ala ez erabakitzeke.

- Zigorak jarrita ere, kontratistak akatsak konpondu behar ditu, legez.

c) Esleipen irizpideak betetzen ez dituenean. Kasu honetan, jarraibideak hauek dira:

- Esleipen irizpideak ez betetzea da kontratua egikaritzeko edo entregatzeko garaian, kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik, eskaintzan onartutako konpromisoren bat edo gehiago ez betetzea, batik bat kontratua gauzatzeko eskulanaren ingurukoa.

- Bete gabeko konpromiso horrek esleipen irizpideekin zerikusia duela egiaztatzeke honako hau egingo da: bete gabeko esleipen irizpidean kontratistak lortutako puntuazioari %25 kenduko zaio; puntuazio berriarekin bere proposamena ez bada aurkeztu ziren guztien artean onena, hautsitako konpromisoak esleipen irizpideekin zerikusia duenaren seinale izango da.

- Oro har, zenbatekoa izango da kontratuko aurrekontuaren %1, salbu kontratazio organoaren iritziz baldintza haustea larria edo oso larria bada (betiere arrazoiak eman behar ditu); kasu horretan, zigorra aurrekontuaren %5etik legez ezarritako gehiengo %10erakoa izan daiteke. Baldintzak behin eta berriz ez betetzea aintzat har daiteke arazoa larria den ala ez erabakitzeke.

d) Atzeratzen denean. Kontratistak ez baditu betetzen epe osoa eta epe partzialak, eta arrazoiak hari egozteko modukoak badira, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196 artikulua baliatuko da zigorak jartzeko.

27. Azpikontratazioa

Kontratistak ezin du obrak egiteko azpikontraturik egin.

28. Kontratua betetzea

Kontratua onartzeko aintzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 218 artikulua eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 163 artikulua eta hurrengoak.

Obrak amaitu eta onartzerakoan, kontratistak batik bat baldintza hauek bete dituela egiaztatuko da:



ATAUNgo UDALA

- 1) Obrak garbitzea. Kontratistak obra eremutik kanpoko lekuak zeuden moduan utzi behar ditu.
- 2) Kontratua akatsik gabe betetzea.
- 3) Esleipen irizpideak betetzea.
- 4) Egikaritze baldintzak betetzea.

Kontratua egikaritzen ari den bitartean, enpresa esleipendunak kontratazio organoari jakinarazi behar dio zenbat lanpostu sortu dituen, zenbat langile berri hartu dituen eta zenbat baja izan diren; horretarako egiaztatagiriak aurkeztu behar ditu.

29. Kontratua bertan behera uztea

Kontratua bertan behera uzteari dagokionez, honako hauek hartuko dira kontuan: oro har, Sektore Publikoko Kontratuen Legean 205. artikulutik 208. artikulurainokoak; eta obra kontraturako, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 220, 221 eta 222 artikulua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorrean, 109. artikulutik 113. artikulurainokoak eta 172 artikulua.

Bereziki, kontratua bertan behera uzteko arrazoitzat hartuko da 26. klausulako lehen paragrafoan ezarritako egikaritze baldintza ez betetzea, urratze hori oso larria bada, 26 klausulako azken paragrafoaren arabera.

Kontratua bertan behera uzten bada kontratistari egotzitako arrazoiren bategatik, Legearen 208.4 artikulua beteko da.

30. Bermearen epea

Bermea URTE BETERAKO izango da, jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Epe horretan kontratistak Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 167 artikuluan azaltzen diren betebeharrak bete beharko ditu. Gainera, artikulua beraren arabera, Administrazioak, kontratua betetzen ez bada, kontratistaren kargura egin ahal izango ditu obra zaintzeko lanak.

Berme garaian, obrak zaintzeko gastu guztiak kontratistak ordainduko ditu eta ez du izango horregatik kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik. Obran ezinbestean gertatutako kalteak ez dira bermean sartzen eta korporazioak ordaindu beharko ditu. Korporazioak, betiere, kontratistari agindu diezaioke kalte horiek konpontzea.

31. Likidazioa

Aurreko klausulan aipatu bermearen epea amaitu ondoren, kontratua likidatu egingo da, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorreko 179 artikulua arabera.

32. Jurisdikzioa

Kontratuak irauten duen bitartean sortzen diren gaiak kontratazio organoak erabakiko ditu. Gai horiek ebazteko hartutako akordioekin administrazio bidea amaitu egingo da; dena den, akordioaren kontra egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.



ATAUNgo UDALA

I. ERANSKINA

Izen-abizenak Helbidea Posta
kodea, NAN, Telefonoa

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa
.....

..... kontratatzeko asmozk dei
egindako lehiaketaren berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:
..... €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne.
Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio.
Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen
arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura
ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:
.....

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau
arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta
gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat
hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko
indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen
ditu.

4) Obrari atxikitako enpresa bertako batz besteko langile kopurua
.... pertsona izateko konpromezua hartzen du.

.....(e)n, 20...(e)koaren(a)
Izenpea

EGINBIDEA.- Klausula Administratibo Partikularren Plegu hau, Udal Plenoak
2010eko martxoaren 22an egindako ez-ohiko bilkuran onartu zen.

Ataun, 2010eko martxoaren 23an
Idazkaria,